



bulegoak

Agentziak eta bulegoak

Seguros Bilbao-n profesional bat izango duzu ondoan entzuteko prest egongo dena, zure arazoetan inplikatuko dena eta konponbide indibidualizatuak eskainiko dizkizuna. Konfiantzazkoa eta konprometitua, **zure aholkulari pertsonala.**




**Seguros
Bilbao**

*Foileto hau informatzailea da. Beraz, bakarrik izango dira baliozkoak polizan espresuki agertzen diren berme eta zerbitzuak.

Modelo: 20404



bulegoak
Agentziak eta
bulegoak



“Juanek nahi duena da bere bulegoan denak ondo funtziona dezala. Horregatik dauka aseguru bat laguntza azkarra bermatzen diona istripu bat gertatuz gero.”



**Seguros
Bilbao**



EZ GEHIAGO ETA EZ GUTXIAGO

Nola ezinezkoa den istripuak eragozte, Bulego aseguru honen helburua da bizkor eta zeuri komeni zaizun eran arintzea istripuen ondorioak.

Arriskuarekin guztiz identifikatutako poliza bat proposatzen dizugu, ez gehiago eta ez gutxiago; aseguru bat, beharrezkoak diren bermeak soilik emango dizkizuna, zuk eta zure negozioak behar dituzuenak, jabea nahiz maizterra bazara ere.

ZURE BIZIMODUA SEGURTATZEN DUGU

Aseguru honek bulego bat daramaten pertsonen babes premia guztiak betetzen ditu, edozein izanik ere bulegoaren jarduera: bulegoak, agentziak, bulego profesionalak, irakaskuntza zentroak, mediku eta albaitari kontsultak, e.a.

Seguros Bilbao-n aurkituko duzu zure negozioa babes-teko eta, beraz, zure bizibidea segurtatzeko modu zentzuzkoena. Eta dena prezio harrigarrian.

ZURE NEGOZIOA EZERK GELDITU EZ DEZAN

Berme horiekin batera, aseguru honek arreta eta presazko konponketa zerbitzu oso bat eskaintzen du, negozioan eragina izan dezaketen gertakari guztiak konpontzeko: iturgintza-lanak, argindarra, sarrailak, leiho eta kristal hautsiak, e.a.

Horrelako egoeretan nahikoa da dei bat egitea eguneko nahiz gaueko edozein ordutan, eta berehala aktibatuko da profesional espezialista bat arazoa konpontzeko.

Gainera, polizak enpresarientzat oso interesgarriak izan daitezkeen laguntza zerbitzuak ere eskaintzen ditu, hain beharrezkoak gaur egun nola baitira, adibidez, babes juridikoa edo laguntza informatikoa.

BERME NAGUSIAK:

- Suteak
- Tximistak
- Leherketak
- Osagarriak:
 - Bizigarritasun eza
 - Alokairu galera
 - Hondakinak kentzea
 - Suhiltzaileak
 - Dokumentuak berrezartzea
- Defentsa eta kalteak erreklamatzeko:
 - Telefono bidezko laguntza juridikoa
 - Zigor arloko defentsa
 - Kalteak erreklamatzeko
 - Hornikuntza eta zerbitzu kontratuak erreklamatzeko

HAUTAZKOAK

- Arrisku hedakorrak
- Urak eragindako kalteak, matxurak aurkitu eta konpontzea
- Errotuluak, kristalak, marmolak, granitoak eta komunetako loza
- Lokalaren jabearen erantzukizun zibila, erantzukizun zibil patronala, maizterrarena jabearen aurrean
- Eraikinaren jabearen erantzukizun zibila
- Irabazien galera / Gastu orokorrak
- Kalte estetikoak
- Kalte elektrikoak
 - Lapurretak, kalteak, espoliazioa
 - Bezeroak atrakatzea
- Sarrailak aldatzea
- Ekipo informatikoak
- 24 orduko laguntza